

# Urtarrilekoa



# Urtarrilekoa

**irudiak:**

IRRIMARRA ilustrazioa

**ipuina:**

Yolanda Arrieta



**BOOKTEGI**

*Guztion liburua, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

Katu beltz handi-handi bat bizi da gure ganbaran. Bere izena? Katalamixon. Katalamixon, hara eta hona ibiltzen da, miau eta miau, aspertuta. Bakarrik bizi da, ile asko-asko dauka eta buztan luuuzeluzea.



Behean, sotoan, sagu zuri txiki-txiki bat bizi da. Bere izena? Zipriztin. Zipriztin ere hara eta hona ibiltzen da, ogi-apurren bila, txorixo-hondakinen bila edota txoko bero baten bila. Zipriztin ere bakarrik bizi da eta azkar-azkar ibiltzen da, ez aspertzeko.





Atzo gauean, lotara nindoala, balkoian  
zer ikusiko? Katalamixon eta Zipriztin!

Elurra ari zuen, mara-mara, eta herriak  
merengezko tarta ematen zuen.  
Katalamixon eta Zipriztin hantxe zeuden,  
gure etxeko balkoian, aurrez aurre, elkarri  
begira, geldi, argazki batean bezala.  
Atzean, ilargi borobil handi-handia.

Bat-batean, ilea harro-harro jarri zitzaion katuari, erpak zorrotz, muturra luze.



Aurrean, sagu zuri txikia zeukan. Sagua erabat kikilduta zegoen eta berez zena baino askoz txikiagoa ematen zuen.

—Ka-ta-la-mi-xon —esan zion katuari, hortzak dar-dar—, ba-za-toz tei-latuz tei-la-tu es-ki-a-tze-ra?

—Hummm —erantzun zuen katuak, burua saguaren muturrera hurbilduz—. Aurretik eman arrazoi bat zu ez jateko.




Sagutxoak azkar-azkar pentsatu behar izan zuen erantzuna:

—Eeee... —hasi zen, ikara disimulatuz —Jaten banauzu, ehun gramo gehiago izango dituzu..., baina... lagun bat gutxiago.

Katalamixon harrituta geratu zen. Atzerantz eraman zuen burua eta ilea apaldu zitzaion.

—Ño! —egin zuen, aurreko oinekin biboteak ukituz.

Zipriztinek ez zekien zer egin. Katua geldi zegoenez, buelta eman eta tipi-tapa handik alde egitea erabaki zuen. Baina, orduan, zer gertatu zen? Ba gure katuak saguaren buztan zuriari jarraitzea erabaki zuen.



Teilatz teilatu eskiatzen igaro zuten  
urteko lehen gaua...  
Eta elkarrekin jarraitzen dute, orain  
ere, sotoan, ganbaran eta balkoian,  
bata bestearen ondoan...







**BOOKTEGI**

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eu](http://booktegi.eu)